

**XEDAPENA, 2024KO MAIATZAREN 16EKOA, OSATEK-EKO ZUZENDARI GERENTEARENA. HONEN BIDEZ, ONARTU EGITEN DA LEHIAKETA-ALDIKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERREDA, PUNTUAZIOAREN ARABERA, OSATEK-EN HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOKO TEKNIKARIAREN KATEGORIAN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO, OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ.**

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 28ko xedapen baten bidez, lanpostuak kategorია profesionalen arabera banatu ziren, eta lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak arautu ziren, deialdi berezi baten bidez, OSATEKen aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 30eko xedapen baten bidez, onartu egin ziren OSATEKen, hizkuntza-normalizazioko teknikariaren kategorian, lan-kontratu finkodun langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2024ko martxoaren 20ko xedapen baten bidez, onartu egin zen oposizio-faseko izangaien behin betiko zerrenda, puntuazioaren arabera, OSATEKen, hizkuntza-normalizazioko teknikariaren kategorian, lan-kontratu finkodun langile izateko hautaketa-prozesuan.

Merezimenduak aurkezteko epea amaituta, zuzendari gerenteak izangaien behin-behineko zerrenda onartzen du, puntuazioaren arabera, baloratutako atal bakoitzean lortutako puntuazioekin eta prozesuko hurrenkera-zenbakiarekin.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

### XEDATZEN DUT

**Lehenengoa:** Lan-kontratuko langile finkoa izateko, lehiaketa aldiko izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, puntuazioaren arabera, hizkuntza-normalizazioko teknikariaren kategorian. Zerrenda hori xedapen honen eranskinean dago.

**Bigarrena:** Xedapen hau OSATEKen webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/2022ko-enplegu-eskaintza/webosk00-otkcon/eu/>) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)) argitaratzeko agintzea.

**Hirugarrena:** 5 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko, OSATEKeko zuzendari gerenteari helarazitako idazki baten bidez, [op-tnl6556osatek@campo-ochandiano.com](mailto:op-tnl6556osatek@campo-ochandiano.com) helbide elektronikora bidalita, edo, bestela, posta arruntez, helbide honetara: OSATEK, Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza Eraikina, 48011 Bilbao.

Bilbon, 2024ko maiatzaren 16an  
Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz